

Greziako erlijioaz

Una vez evocada la historia religiosa de Roma, no estará de más un breve apunte sobre la religión de la antigua Hélade, aunque los griegos no llegaron a colonizar nuestras tierras. Sin embargo, hay que recordar que la vida religiosa romana, presente entre nosotros, estuvo profundamente marcada por sus contactos con el mundo griego. Por otra parte, no olvidemos que el Nuevo Testamento fue escrito en griego (no casualmente), y que la teología cristiana lleva en sí la impronta de la cultura helena. Veamos, pues, algo sobre aquella Grecia religiosa.

Lurralde, antzinako Grezia edo Helade, bere adiera estuan, ez zen izan luze-zabalegia, eta nolahi ere gaurkoa baino txikiagoa zen. Egun krisi larriaren ikusten dugun Grezia hau, garai batean demokrazia eta jakitez historia osoko aberatsenetakoa izan zen. Handia izan da, zinez, Greziaren historia, bikaintasunez betea, eta bere kultur sormenez Erroma eta Europan barrena mundu osora ere hedatu dena.

Grezia eta bertako herria

Grezia klasikoa lau eremu geografiko ezberdinetan banatuta zegoen: kontinentetarra, penintsulatarra, irlatarra eta Mediterraneo osoan eskuratutako lurraldeak, eta kolonia grekoak.

Greziako lurralde kontinentetarrean zeuden Atenas eta Tebas hiriak edo Atika eta Beozia eskualdeak. Atenas-en garairik onenean ere (K.a. V. mendean), Mazedonia eta Trazia, esateko, Grezia klasiko hartara bildu gabe zeuden. Grezia penintsulatarrean zeuden, Peloponeson alegia, Esparta eta Argos hiriak eta Lakonia edo Arkadia bezalako eskualdeak. Horren guztiaren inguruetan dauden irlek osatzen zuten Greziaren gune nagusia.

Jatorrizko Greziatik harago beste Helade bat ere sortu zuten greziarrek: Joniako hiri aberatsena (Gaurko Turkiako kostaldean), eta "Grezia Handia" deitua Italiako hegoaldean, nahiz Sizilia bere hiri grekoekin (Sirakusa...). Eta Mediterraneoan mendebalderantz, beste hiri

eta merkatalguneak, baina hau dena ez zuen Helade osoak elkartuta egin, Heladeko hiriek, bakoitzak beren gisara baizik. Adibidez, Galian eta Iberian Joniako fozeatarrek burutu zuten beren kolonizazioa, *Massalia* (Marseila) eta *Emporion* (Empúries) bezalako hirietatik.

Itsasaldeko geografiak lagunduta, Grezia klasikoa itsasora begira bizi izandako herria da. Irletako bizilagunek, noski, baina baita lur lehorreko bailarek ere itsasoa eta nabigazioa zituzten amets. Itsasoa barrena burutu zuen Greziak bere historia ekonomikoa eta kultural handiena.

Garai haietan Grezia ez zen izan Estatu bakarra, hau da, Estatu-nazio batua, eta hiri burujabetan sakabanatutrik ageri zaigu herrialdea: bakoitza bere buruaren jabe, hiri barrua gobernatu eta kanpokoekin harremanak komeni zitzaion moduan eratzeke. Hiriak, *polis* bakoitzak, bere erakunde eta legeak zituen, eta hiriak berezikiago aukeratutako jaingo babesleak, beti ere Grezia osoko tradizio erlijiosoaren barruan.

Dena den, grekoek bazekiten "herri" bat zirela: memoria historiko bera zuten, barbaroek ezagutzen ez zuten hizkuntza bakarra, greziera, jai eta ospakizun panheladetarrak zituzten eta guztiena zen erlijio bakarra, tokian tokira egokitu. Kolonizazio grekoak hori dena eraman zuen Mediterraneo guztira.

Greziarren erlijioaz

Inon gutxitan ageri da argiago erlijiotasun herri-



tarraren eta erlijio “eskolatuaren” arteko harremana eta elkar-osagarritasuna. Hasieran, herriak sorturiko jainkoen oroimena zegoen, berehala *aedo* eta *rapsodek* (kantariak eta errezitzaileak) herriz herri eraman zutena.

Homerok jaso eta edertasun betera eraman zuen hori, jainko eta gizakiak arteko drama poetiko gisara (*Iliada* eta *Odisea*). Poema horietako pasadizo zailtan nahiz erabaki handietan, beti zeuden elkarrekin –arerio eta lagun– jainkoak eta gizakiak, bi alderdi aurkarietan batzuek nahiz besteak. Greziako ondare mitiko nazionalak adierazpide literarioa izan zuen Homero-ren lanetan.

K.a.VIII. mende hartan bertan, Hesiodok erakutsi zuen, modu didaktikoago batean, jainko grekoen mitologia nolakoa zen, eta olerkari hark eta Hesiodo-ren *Teogonia*-k posible egin zuten herrietan kantari zebiltzanen lana ez ezik jainkoen kontakizunak eskoletan buruz ere ikasteko aukera. Liburu sakratuen balioa izan gabe, bi idazle haien idazlanek eman zioten Greziari zer sinets eta zer ospa, erlijio zibil eta sakratua.

Hala ere, poema handiak gorabehera, erlijioaren gobernurako lema Heladeko herritar guztiei zegokien. Greziarren erlijioa behetik gora eraikia zen, familiatik hasi eta leinutik (*genos*) gora hiri-estaturaino (*polis*). Herritar guztiek zuten zer esan eta zer egin guztienak ziren ohizko sinesgai, erritu eta usadioetan.

Nolabait esateko, laikoa zen Greziako erlijioaren antolaera. Grezian ez zegoen apaizgo antolatua finkorik; alderantziz, herritar zibilek betebeharrekoak izan ohi ziren zeregin erlijio-soak, era berean famili buruek nahiz herriko kargudunek. Mesopotamian edo Egipton apaizklasea egon zen horretarako ez ezik zientzi aurrerapenak ere egiteko. Grezian herritar “paisanoena” zen hori dena.

Mitologia literarioak aurkeztutako jainkoen “gizartea” hagitx aberatsa zen jainko handi (jainko olinpikoak: Zeus, Poseidon, Hades, Afrodita, Demeter...), txikiago (Orfeo, Minotauro, Atlas...) eta heroitan (Herakles, Perseo...). Erromatarrek mirespenez ezagutu eta moldatu zuten mitologia grekoa, eta beronen zenbait aztarna Mendebaldeko kultura kristauan ere txertaturik geratu dira.

Bestalde, horien ondoan, herritar xumeak bazituen bere jeinu apalagoak (iratxoak edo), gehienetan naturan bizi zirenak (sirenak, ninfak, naiadeak, menadeak, satiroak, nereidak...), nahiz norberaren bizipenei zegozkienak. Hortaz, poetako jainko handien ondoan betiko beste jainko txikiok zeuden, izadi osoa biztanletzen zutenak. Ez da harritzekoa jainko hurbilago hauei Greziako txoko guztietan eraiki zitzaizkien kaperen sarea, Helade osoa lurralde sakratu bihurtuz.

Familia eta herritarren egunerokotasuna ere goi-indarrek babestua zegoen, eta etxeko aldarean eskaintzen ziren opariak, eta bertan piztuta zaintzen zen etxeko su sakratua. Haur jaio berriari sukaldeko suaren inguruko ospakizunean egiten zitzaion ongi-etorria; gizarterako, *fratria* edo elkarte batean ematen zen beraren izena; jainkoekiko jaierek segurtatzen zuten leinua eta herria. Dogmarik ez bazegoen ere, jainkoekiko begiramana, errituak eta sakrifizioa gizarteko erlijiotasunaren parte ziren.

Tenplu ederrak eta Santutegi sonatuak egon ziren Grezian, batzutan eskualdekoak, baina baita erakarmen nazionala izan zutenak ere (Olinpia, Delos, Delfos, Eleusis). Erromesaldiek aspalditik zetorren erlijiotasun herritarra garatu zuten.

Joseba Intxausti